

Drogak eta lo-bedarrak

Kezkatzen asiak gara, ta erra-
zoiz. Droga ta bedar lo-erazleak,
gutziz kaltegarri yakuz. Zoro
etxeak ugarituz doaz, eta burutik
gaixo dagozanak —gure artean
be— lengo aldean asko dira. Go-
zagaillu, droga, lo-eragille ta ola-
koak —alkoola aztu barik— dira
burua nastu, zorarazi ta gaixo bo-
ta-eziñez ondatzen gaituenak. Ika-
ragarriak dira ontan azken aldio-
tako estadistikak. Naziño aurrera-
tuetan batez be, euneko amare-
tik gora taie ortan aurkitzen dira.

Gaixo onek, bedar txarrak le-
indar biziagoa artzen dluanik etim
leikegu uka. Izurrite galgarri emi
esiak ipiñi nairik, lan asko dinto
agintariak, baita idadleak. Ino, l-
urri barik sartu bai yaku orre-
men, Familian, gazteen, orre-
atan be, eguneroko aytua dala
rudi. Pastilla, lo-bedar ta d-
oneik zer diran, zelan arren, o-
ran, zelako kalteak denietan. Ad-
zein bazterretan azaltzen dlan dala
autortu bear. Kimio-iztilari ta psi-
kiatrak diñoenza, Suesia'n eta l-
terri Batuetan zin zutan be, egu-
ra larria sartu dabe drogok, eta
Europa'ko beste naziñoetara be
laster zabalduko, ez dudarik izan,
izurri orren atsa.

Gure artean be bai? Baita. Da-
kigunez, ba-dira errialde batzuk
—Turkia, esate baterako— drogak
legez landu ta artzen diranak. Bai-
ña onei urteiera emon bear yake.
Ta or untzea; beste naziño askotan
legez galazo arren, munduko lu-
rralde guztietan saltzen dira. Ta ez
da azoka txarra, irabazi ederrak
dakazana baiño. Espaiña ezta toki
txarra sartu-atara ta zarramarra
ortarako; Asia'tik Europa'ra dato-
rren guztia, edo geiena, emendik
doa. Itxasoz asko, egazkiñez gixia-
go ta bitxabalez naikoa. Ta bertan
peratzen dana? Ta saltzen dana?
Itxura denez, Madrid'en, Sevilla'n,
Zaragoza'n, Bilbao'n eta abar, or-
talako be ha dira ederto eraturake
rakundeak.

Ta dala, drogak nei douzala?
Ez dala azar edozela kafe-etxetan
dala, jentilak noie jaunbuzak sal-
duta. Ino dala, zeta azwan bateko
dala, urratsketan artzen dabe-
re orrasti illon hoten nekka-mutil
aldora. Huria da ta ez dala zer
egia, illarruak bezapean dituela or-
daliltz elgetan, irri ta barreka,
ipuria eta itz goco, nasa' ta gordi-
ñak, esaka, ta zigarrotxoak erre-
tzen. Drogak artzen, asper-aldia ze-
lan lgaro ez dakiela.

Eta oneik, gozo-zaleok, erre-zaleok, droga-zaleok ez dira erreka zuloko neska-mutillak. Famili one-takoak dozuz sarri. Gaiztakeria-
ren eragiña! Erri bat, enda bat on-
datu nai danean, asmatu ete dai-
kegu bide makurragorik? Eta guk
be emen daukaguz, etxean, len
urriñeko ziran drogak. Edozeiñek
erosi leikez. Eta erosten dabez.
Nortzuk? Dirudun jauntxoak, gaz-
tetxoek zirrara bizia eizatu nai da-
ben aberats lizunkoiak, biotz-ika-
ra barriak gura dabezana neska-
mutillak, barru ta kanpo aulduta da-
biltzan ikasle gaixoak. Ona, bai,
gizarte bat, erri bat soin ta arima
ondatzeko erarik gaiñ-gaiñekoena.

Gaur bertan ba-daukaguz Ma-
drid'en gazteen klub eta batzokiak
LSD aspirina lako opil txikiak, bai-
ta grifazko zigarroak be, diru piz-
kat aldean darabilen edozein ikas-
lek erosteko eran. LSD gizaldi on-
tako droga dogu, ta danetatik il-
garriena. Hoffman, suizar kimi-
kuak ezagutu-azo eban lenengoz,
1938'an. Droga oni emonak izango
dau nasterik eta buruko gora-be-
rarik, egunerokoetatik dakigunez,
eriotzak be egiteraiño bultz-eragi-
ñik sarri askotan; gogora Manson,
Manfred Becker eta antzekoak. Az-
ken ondorenak be ez dira txikia-
goak: sarrakio ta latz-ikara, etsi-

pena ta uts soilla. Au artzen dabe-
nak traskil, baldres eta zarpazar
biurtzen dira. Hippiek eta hippie ez
diranak, ikasleak, marketsak, gi-
zon eta emakumak, gazte ta za-
rrak, goitik beerako burdi ariñean
doaz euren buruak amilderazi ta
ondatzera.

Marxistak lenago erlejiñoa erria-
ren lo-erazle zala iñoen. Esaera ori
itzulaztuaz gaurko erlejiñoa millo
askorentzat drogea dala esan dai-
kegu. egitik asko okertu barik. Or-
tik datoz ondoren etxetik iges egi-
teak, maitakeriak, kotxe ostuteak,
neurrik bako askatasun naia,
ikasketa ta estudioai muzin dagi-
tsen gazte taldeak, kaleko ta ko-
merzioetako lapurretak.

Gure dantza-leku ta barretan be
saltzen dira drogak. Zer diñoe gure
kaleko ta baserrietako neska-muti-
llak? Urliari au jazo yakon, san-
diari bestea... Amalau-amazazpi
urteko neska-mutillak, ganora ta
zentzun bako gazteak, edozein ka-
fe-lekutan, edozein jolastokitan,
edozein bazterretan, ... kalako gau-
zak! Gure gaztetxoak! Gaiñ dozue,
igarri barik, munduko ezagutu
dauan ertun eta zorin-erik aundie-
na! Ta ba-dira —gure artean di-
ñot— ortarakoxe latorrik, diru-
griña zitalak eragiala, olako

etxeak jarri dabezanak. Oneintza-
ko ez al dago zigorrik? Zerura ga-
rraxiz... Inpernurik ez dagoala?
Ez, ez yatzue komeni. Baiña emen
ordaintzen ez dana, nunbait or-
daindu bearko.

Droga klase asko ezagutzen dira.
Ona sei aitatuenak:

Marihuana. Irureun bat izen di-
ferente artzen ditu; geien zabaldu-
ta dagoana da; oso kaltegarria.
Mexiko'tik dator jatorriz, eta **can-
nabis** aziko landara baten orrieta-
tik atera oi da, ta takean potean
zigarro lez erreten. Asmatu eziñak
yatzuz lo-bedar onen ondorenak;
lenengo dakarrena, alan be, olako
sasoitasun garbala da, ta esan-ezin
alako illunaldi ta larritasunak ge-
ro. Begi-belarrietako lausoak sarri.
Apurka apurka buruko argi-inda-
rra aultzen da, meko ta bildurti
biurturik. Azkenez, zauri osatu ezi-
ñak egiten ditu buruko eunean, eta
zoramenara saka eragin.

Kokaina. Ugari-ugaria dozu Ego-
Ameriketako lurralde batzuetan,
Peru'n eta Bolivia'n, esaterako. Iru
metro ta erdi lez azten da **koka** de-
ritxon abetxoa. Onen adarrak, mei
ta nabar-gorritzak, arrautz antze-
ko ostotxoak daukiez puntetan;
oneitatik atara daroe kokaina.

Kola edariakin erabilli oi da. Os-
toak umotzean, lenengo leku itxian
eta gero eguzkitan legortu egiten
dira, azkenez, ondu-lan askoren
ostean, kokaina jaritxirik. Kafe
edo te lez artzen Ego-Amerikan
orri onein egosia. Begi-zirujian,
aspalditik, ba-dau bere arazoa: to-
kiko sogorgarri (anestesiko) da.
Baiña droga lez oni emonak bat-
bateko eriotzaz amaitu oi dabe,
gazterik zaar egin ondorean.

LSD. Garagar lastoan azten da.
Zuria da, autsa iduri. Ta bere zo-
rapen-indarra, esan dogunez, ika-
ragarria. Buruko zorabio ta lillu-
rak errez sortzen ditu.

Opio. Asia'tik datorkigu geien
bat. Lo-erazle gaia; baltzizka, mer-
gatza ta usain gogorrekoa. Lo-be-
dar berdeak legortuaz ateraten da
droga au, ta min-arintzaille lez era-
billia izan da gizaldiak zear. Auto
antzerak saltzen da. Bafta garautxe
lez be. Txina'n millaka ta millaka
dira opio enretzailleak. Enean
errete ori emonek ogundak...
kada batzuk arju oi daben...
gramo lez bakoryean...
kaltegarriak dakarrez...
tsone gualia, gorputz eta arima...
mel, aul ta emondua itxirik.

Morfina. Jatorriz opiotik dator.
Eta onen antzekoak dira bere on-

dorenak be. Eztau kidekorik izan aspaldi batetik naigabe ta oiñazeak sortu ta gozatzeko. Kirioak ibitzeko dau batez be bere indar berezia, ta dosis txikian artuta be, miñaren sentikortasuna gozatu oi dau. Errez baldartu oi dau adimena, ezertarako indar bage itxiaz; laster datoz zear-mearka ibilteak, itz erdiak, ames-erreñu zearko joan-etorriak.

Heroina. Morfinatik datorren alkaloide bat da. Auts zuri antzekoa au be. Triskantza ta kalte ikaragarriak dagizan droga. Indar aundia dau lillura erazteko, opio ta morfina biak baiño indartsu ta galgarriagoa da-ta. Onek sortu oi dauan zoramena, besteena baiño biziagoa izaten da geienik; gorputza ta adimena bizkorrago irauli ta artegatu daroaz. Pozoi-zaleak (toxikomanuak) kokaina lez, sudur-aize edo arnasaz artzen dabe heroína edena. Txakur-eztula ta arintzeko erabilli oi da osakintzan.

Drogok, eta beste askok, esan ezin alako triskuak dakarrez. Emakumeari batez be. Guztion gomutan dago oraindiño talidomidaren ondamendiak. Aren eragiñagaz jaiotziran umeak etziran izan bear bezelakoak. Seindun dagon emakume bati zuzenik erasoten dautsoe dro-

gak. Ortik datorren seme edo alaba ezta bere einekoa izango. Geiagor: daitekena da, bai, drogak artu ditun semeen semeak be taiu askotako lardaska ta goraberak, txarrak geien bat, bere osasunean izatea.

Errukiz begiratzekoak dira, bezar, ainbat neska gaztetxo, aurrenekoak dirala-ta beste barik, droga baten birlora ta biotz-eragiña billatzen dabena. Ez dakie gaixoak zelako kaltea dakartsoen euren gorputzari; ez eurenari bakarrik, baita geroan mundu ontara ekarri leikeezan beste gizaki batzuei be.

Errukarria, bai, droga atzetik dabillen edonor. Mundu ontako biotz ikarakaz asetarik, beste batetakoak opa ditu. Zain baten doi txiki bat ipiñi ta beste «mundu» batera daroa artzaillea, ta lillura utsean, or bizi da ordu batzuetan; gero, lo ta errebesak; gero, osterabe, geiago nai. Ta era orretan bein eta barriz. Zenbat eta geiago artu, geiago gura. Ardauagaz edo beste edozein griñagaz geratu oi dana. Neurri aundiagoak, droga xiringada geiago...

Drogarako detu (mani) au osatzeko biderik? Medizina gaur au-

Kondaira gomuta

—Kondairako gauzak, ezin daikegu uka, aspaldiko egiten diranean, lausoz bete ta moteldu egin oi dira. Baita zatirik aundiena aztu be. Geienez, urriñeko testigu antzera geratzen da; eztau eukiten bakotxaren bizitzan ondo-ondoko eragiñik.

—Abertzale arnasak erne-azten dauz bakar-bakarrik. Eta —zelan ez?— olako jazokun egun arrigarri batzuk. Egunok aundikiro ta pozik jaitu oi doguz. Gaur-gaurko

rrerakada ikaragarriak egin ditu, ta gaitz oneri be esia jarri yakola esan daikegu. Argi pizkat bada illunaldi ontan. Bada metadona deritxon osakai bat, droga ta lo-erazleen kontrakoa; droga geiago artzeko guraria gitxitu, ta osoan kendu be bai, egiten dautso artzai-

lleari. Laranja uretan artzen da, edari lez. Gaur, munduko klinika askotan emoten dana da. Ta etsipenaren ertzez ertz doazan askotxo, edari orrek damotsen pozibizitasunez, barriro be giza-itxura artzera biurtzen dira.

I.

edestia, kondaira, istoria, ala alarik, geure urrekora dana, besterak dozu; onek giza-taldeak sutsatu ta bizkor-atoaz dardar dagi; antziran alkar ekintzak be beronek ibiltu-azo ta mugatu oi ditu. Esta. Ino-rik be, gomuta lo-zurrundua, Ertetik orrek itz dagi, gaiñera, gura narru ta soñean, edo-ta gasterko ziralako ikusle soil izan ziranen joan-aldiko mintzean.

—Kondaira au ezin daikegu errez aitzu-lezara bota.